



Sagardoetxea
herri baten erroak

“Santiagomendiko Sagardo Bidea” Prensa Dossier

Kontaktua

Leire ALKORTA
Telf.: 943550575
prentsa@sagardoetxea.com

SAGARDOETXEA, EUSKAL SAGARDOAREN MUSEOA

SAGARDOAREN
LURRALDEA

txotx.info



Sagardoetxea

Sagardobenda



SagardoPedia

SAGARDUN
SAGARDOAREN MUSEOA ASTIGARRUA

“Santiagomendiko Sagardo Bidea”, Sagardoetxea Museoko laugarren gunea.

Aurten “Santiagomendiko Sagardo Bidea” izeneko Sagardoetxeako laugarren gunea martxan jarriko da. Ibilbide tematiko honetan zehar, sagardoaren kulturaren bitartez, Santiagomendiko baserrien eta Astigarragako historia, bertako biztanleen bizimodua eta Santiago Bidearen Gipuzkoan zeharko punturik adierazgarrienetarikoa ezagutzeko aukera izango da azalpen panel, multimediazko elementu eta joko interaktiboen bidez.



Santiagomendiko ibilbideak, Euskal Herriko baserrientzako elikadura eta euskarri ekonomikoa izan den **sagardoaren kultura** ezagutu eta barneratzen laguntzen digu Astigarragako inguru honetan zehar, hauek gertaera kultural eta ekonomiko honen adibide paregabea izan baitira.

Orain arte egindako bidea luzea izan da. Proiektua duela hiru habian jarri zen **Josu Tellabide** eta **Asier Aguirresarobe** etnografoek eta **Lourdes Odriozola** historialariak gauzaturiko ikerketa etnografiko eta historikoarekin. Lan honek, Santiagomendiko bizilagunek Astigarragako historian eta sagarraren laborantzak eta sagardoaren ekoizpenak Astigarragako jarduera ekonomikoan izan zuen garrantzia ezagutzeko aukera eman zuen. Informazio hau aintzakotzat hartuta, mundu mailan ibilbide esperientzialen diseinuan eta garapenean liderra den Austriako **Pronatour** enpresak “Santiagomendiko Sagardo Bidea”-ren kontzepzioa eta diseinua burutu zuen.

“Santiagomendiko Sagardo bidea” Sagardoetxea, **Euskal Sagardoaren Museoko laugarren gunea** izango da eta **euskal sagardoaren kulturako erakargarri** berri bat izango da.



Ibilbide tematiko honen helburuak **Santiagomendiko landa inguru paregabe eta bakarraren mantenua**, gure ondare historikoaren **babesa** eta sagarraren eta sagardoaren kulturaren **zabalpena** dira.

Helburu hauekin, azalpen panel, audio, joku eta asmakizun ezberdinez osaturiko **zortzi geldialditako ibilbidea** diseinatu da bisitariek sagardoaren kultura modu dibertigarri eta parte-hartzailean ezagutu ahal izateko.

0. Hasiera
1. Boterea
2. Baserriak
3. Sagardoa eta itsasoa
4. Paradisua
5. Gainbehera
6. Berpizkundea
7. Txotx-aren erritua
8. Etorkizuna
9. Amaiera

Ibilbidearen ezaugarriak

Distantzia: 6,5 kilometro

Garaiera: 298 metro

Zailtasuna: baxua

Iraupena: oinez 2 ordu

Ibilbidea egiteko moduak: oinez, bizikletan edo zaldiz.

Más información en: **www.sagardoetxea.com**